

TXOSTENA

TOLOSAKO JAIEN BERDINTASUN BEHATOKIA: INAUTERIAK 2020

Inauterietako analisia
2020



AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	4
2. KOMUNIKAZIOA.....	5
Liburuxka eta eskuorria.....	5
Kartela.....	6
Agerraldiak.....	6
Inauterien berri emateko Udal agerraldia.....	6
Kabi Alai Inauterizale kuttuna.....	7
Ostegun Gizeneko omenduak.....	9
Inauterizale Kuttuna Korporazio Bufaren esku.....	9
On Ostegun Gizen konpartsaren Omenaldia.....	10
Hedabideetan.....	11
Berdintasun ikuspegitik ondorio batzuk.....	11
Liburuxka eta esku-orria.....	11
Kartela.....	12
Agerraldiak.....	12
Hedabideak.....	12
3. EGITARAUA.....	13
Pregoia eta txupinazoa.....	13
Txupinazoaren deskribapena.....	13
Ondorioz.....	14
Musika taldeak.....	14
Txosnaguneko Kontzertuak eta Gaueko kontzertuak.....	15
Karroza eta konpartsak.....	17
Lehiaketarako epaimahaia.....	17
Epaimahaiarentzako berdintasun irizpideak.....	17
Parte hartzearen analisia.....	18
Irabazleen analisia.....	19
Berdintasun-saria.....	22
Berdintasun ikuspegitik ondorio batzuk.....	23

Txupina.....	23
Musika.....	24
Karroza eta konpartsak.....	24
4. INDARKERIA MATXISTA.....	26
Kanpainaren xehetasunak (bideoa eta euskarriak).....	26
Indarkeria-protokoloak.....	27
Txosnagunekoa.....	27
Udalekoa.....	28
Berdintasun ikuspegitik ondorio batzuk.....	29
5. SINERGIAK.....	30
6. ONDORIOAK.....	32
7. GEHIGARRIAK.....	33
Txosnaguneko kontzertuetarako erabilitako analisi taula.....	34
Berdintasun irizpideak, epaimahaia konpartsen eta karrozen balorazioa egiteko.....	35
Karrozen eta konpartsen analisi-taula.....	36

1. SARRERA

Tolosako udalak 2010. urtetik darama jaietan berdintasun ikuspegia txertatzen era aktibo batean. Urteetako prozesuari jarraipena eta egonkortasuna emateko asmoz, 2017. urtean, Tolosako Jaiei Berdintasun Behatokia diseinatu zen. Behatokiaren helburua berdintasun politikak modu estrategiko, sistematizatu eta eraginkorrean aplikatzeko tresna izatea da, jaiak berdinzaleagoak izan daitezen. Helburu hau betetzeko, Behatokiaren funtzionamendu tresna bat diseinatu zen, Berdintasun sailaren lidergoarekin eta gainerako udal departamentuen partaidetzarekin batera.

Ez dugu ahaztu behar Behatokia epe luzeko ikuspegian, hobekuntza iraunkorrean eta progresibotasunean (funtzioak, eragile partaideak, lanketa esparruak eta jaiak hazten joango dira) oinarritzen dela. Ideia hau azpimarratu behar dugu, hain zuzen ere, Behatokia udalarentzat eta herriarentzat tresna “bizia” bezala ulertu behar delako; hau da, momentuan momentuko jaietara eta Tolosar jendartera egokitu behar dena.

Aurten Behatokia bere filosofia eta lanari jarraituz, baina gizarte guztia bezala, Covid 19aren ondorioz egokitu behar izan da. Hau da, 2020an ez dira San Joanak ospatu beraz urtero egin ohi den bezala Behatokiak ezin izan du jai honen azterketa egin. Horregatik, Behatokiaren lidergoa daramaten Berdintasun sailak eta Jaietako arloak 2020ko Inauteriak aztertzea erabaki dute.

2018tik Inauterien azterketa xume bat egin da San Joan jaien azterketaren gehigarri bezala. Aurten aldiz inauterien azterketa sakonagoa egin da. Aztertu diren gaien artean, musika, karrozak, omenaldiak, komunikazioa eta indarkeriak daude. Atal guztien amaieran “txalotzekoak” eta “hobetzekoak” taula jaso da. Bertan arlo horretan berdintasuna bultzatzen dituzten gaiak eta berdintasun ikuspegitik hobetu beharrekoak jasotzen dira.

Gora Tolosako Inauteri berdinzaleak!

Animatu eta begirada berdinzale bat bota!

2. KOMUNIKAZIOA

Liburuxka eta eskuorria

Liburuxka eta eskuorria sortzeko azpikontratatzan den enpresari jaietako arduradun teknikoak irizpideak ematen dizkio, ondoren egindako lanari, irizpideak oinarritzat hartuta oniritzia ematen dio.

Udaletik *“Inauterietako eta San Joan jaietako programa ofiziala, itsasgarriak, esku-programak eta kartelak editatzeko eta inprimatzeko”* proposamenen honako baldintzak eta irizpideak jasotzen ditu.

Era berean, publizitate-atalak bat egiten du udalak bere jarduerarako ezarriak dauzkan zeharkako irizpideekin; berdintasunaren alde eta indarkeriaren aurka, besteak beste.

JAIETAKO PROGRAMA OFIZIALAREN EDUKIEN HIZKUNTZA ETA BERDINTASUN IRIZPIDEAK

Jaietako programetan txertatutako informazio oro (testuak, argazkiak, marrazkia, eta abar) bat egin beharko dute Tolosako Udalak euskararen sustapenerako eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako ezarritako irizpideekin, eta hala, alor batean zein bestean jaulkitako ordenantzak bere horretan bete beharko ditu.

Hizkuntzaren kasuan, zehazkiago, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 1990eko abuztuaren 10ean argitaratu ordenatzearen 28. artikulua arabera, euskarak erabilera lehenetsia izango du bai edukietan eta tipografietan ere.

Berdintasunari dagokionez, alor honetan lengoaiak eta irudiak duten garrantzia aintzat hartuta, publizitate euskarrietan ezingo da irudi edo eduki sexistarik erakutsi. Horrela, esplizituki gaitzesgarriak diren irudiak baztertzear gain, gizon eta emakumeen arteko estereotipoak gaundituko dituzten edukiak lehenetsiko dira.

Oniritzi honetarako, Berdintasun sailaren laguntza du, hau da, Berdintasun Sailak argazkiak eta testuak errebisatu ditu, eta gomendioak eman ditu aldaketak egiteko. Egindako proposamenak, orokorrean, kontuan hartu dira.



Liburuxka eta eskuorria aztertu ostean **honakoa esan daiteke:**

- **Erabili den hizkuntza eta iruditegia zaindu da.**
- **Indarkeriaren kontrako mezua eta irudia egon da** “Erasorik gabeko jaien alde, jarrera aktiboa izan! Joka sano. Ondo pasa, pasa gabe #LIBREnnonhai”.
- **Emakumeak ikusarazteari garrantzia eman zaio.** Zeozer gehitze aldera, emakumeen aniztasun handiagoa (adina, joerak, jatorria) islatu daiteke.
- **Berdintasun eta jaietako arloaren arteko koordinazioa** komunikazioari dagokionez bermatu da eta sistematizatuta dagoela esan dezakegu.

Kartela

Duela 51 urtetik, hau da, 1969tik Tomas Hernandez Mendizabalek sortzen du inauterietako kartela. Kartel egilearen aukeraketa tradizio bat da, hau da, urtez urte pertsona berdinak egiten du eta tradizioa bihurtu da.



Kartel honek inauteriak iragartzen ditu eta herriko komertzio eta taberna guztietan banatzen da. Horretaz gain, Tolosako inauteriak irudi honekin lotzen da hedabide guztietan. Aldiz, programaren portada beste irudi bat izaten ohi da.

Kartela sortzen duen egileari Jaietako arloak hainbat irizpide ematen dizkio, hain artean berdintasun irizpideak.

Aurtengo karteleko irudi nagusia bi figura antropomorfoak dira, biak aparantzia maskulinoekin. Beraz, **berdintasun irizpideak ez dituela bermatzen esan daiteke**. Hain zuzen ere, gizartean gizonekin lotzen diren ezaugarriak dituzten irudiak dira gehien bat, ondorioz, **maskulinitasuna nagusitzen dela esan daiteke**.

Agerraldiak

Inauterien berri emateko Udal agerraldia



Inauteriak iragartzeko udalak herriko hainbat eragileekin batera egiten duen agerraldia kuantitatiboki parekidea izan zen. Hau da, 4 lagun izan ziren inauterien berri eman zutenak, 2 emakume; Olatz Peon (alkatea), Mila Ruiz de Intxauspe

(danborradako ordezkaria), eta 2 gizon Ivan Arostegi (Pintxana txaranga) eta Xabier Artola (Udaberri Dantza taldeko ordezkaria).

Horretaz gain azpimarratu behar da iaz bezala, 2019tik, inauterietako berdintasun-sariaren ikurrarekin atera dela argazkia. Horretaz gain “Joka sano, #LIBRENonhai” kanpainaren kartela ere agertu da inauterietako kartelarekin batera.

Azpimarratu behar da, inauteriak iragartzeko egiten den agerraldian **gaur egun parekidetasun irizpideak barneratuta daudela**.

Kabi Alai Inauterizale kuttuna¹

Aurten Kabi Alai elkarteak² Incansables txaranga izendatu du *Kuttuna*, hain zuzen ere, 50 urte bete dituelako eta Tolosako Inauterietan duen harremana 45 urteetan zehar, etenik gabe, mantendu delako. Ondorioz txarangako 4 partaide historikoei, denak gizona izan zirela, bota zuten Ostegun Gizeneko txupina: Jesus Mari Moneo, Manuel Ropero, J. Francisco Esnaola eta Joaquin Ortegak.

Incansables Txaranga sorreran ez zen emakumezkoen egon, gaur egun ere ez, ondorioz Ostegun Gizeneko txupina bota duten 4 pertsonak gizona izan dira. Modu honetan **txupina zeharo maskulinizatua egongo da** eta honekin batera ere azpimarratu behar da berriz

¹<https://www.youtube.com/watch?v=Ob7lrWh4XCw&feature=youtu.be&fbclid=IwAR07DQlwpKdeWo9Ad-ViECLB5P3k8wqZkR-RYgsbdjEJLwbzmj4L-S9Dirc> prentsa aurrekoa zuzenean.

² <https://www.facebook.com/kabi.alai>

ere, aurreko urtean bezala, omendutako taldea gizonez soilik osatutako taldea izan da. Hala, aurreko urteetan (2017 eta 2018) emakumeak ikusgai jarri badira ere, aurtan jardura horretan genero arrakala historikoari eusten laguntzen zaio.



Kuttuna izendatzeko prozesuan indarrean dauden irizpideak honakoak dira: Tolosarra izatea, adin nagusikoa eta inauteriei bere denbora eskaintzea³. Dirudienez irizpideen artean ez dago berdintasuna kontutan hartzen duen irizpiderik. Horretaz gain, Kuttuna aukeratzeko prozesua irekia da, hau da, Kabi Alaiko edozein bazkidek egin dezake proposamen bat. Elkartean orri bat jartzen da eta bertan edozein bazkidek jarri dezake bere proposamena, gero afari baten bueltan proposamen bakoitza defendatzen da eta bertaratu direnen artean aukeratzen da urteko Kuttuna (Kuttuna 2011an sortu zen).

Bestaldetik Kabi Alai Kuttunaren berri emateko egin zen **agerraldi publikoan irudia parekidea izan zen**. Alde batetik Los Incansables txarangako bi kide egon ziren (Mikel Zelaia eta Josu Sanchez) eta bestaldetik Kabi Alaiko Ainhoa Onsalo eta Raquel Ibañez (Kabi Alaiko lehendakaria) gehi Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe kultura zinegotzia.



³ https://www.youtube.com/watch?v=SQNE_frTV8I

Dirudienez **agerraldi honetan ez zen irudirik erabili ezta mezurik eman indarkeriaren kontra.** Laburbilduz, Kuttuna izendatzeko egiten den **agerraldi publikoan parekidetasun irudia bermatu behar dela barneratuta dagoela** esan daiteke, azkeneko urteetan hau zaindu baita. Honekin lotua, berdintasunaren eta indarkeria matxistaren inguruan *Kuttuna* omenaldiak gairekin duen konpromisoa eta sentsibilitatearen berri ez du ematen. Bestaldetik, genero ikuspegia nola txertatzen den eta txertatzen den ere ez dakigu.

Ostegun Gizeneko omenduak

Egun honetako bi omenaldi jaso nahi dugu, alde batetik **Inauterietako udal korporazioak udaletxean bertan egiten duen omenaldia**, kasu honetan Inauterizale Kuttunari eta bestaldetik **On Ostegun Gizen txarangak egiten duena**.

Bi omenaldi ezberdin dira, alde batek udal korporazioa parodiatzen duen Inauterizale Kuttuna, eta bestetik kalean bertan On Ostegun Gizen Txarangak omentzen duena.

Inauterizale Kuttuna Korporazio Bufaren esku⁴

Udaletxeko pleno aretoan, Inauterietako Udal korporazioa parodiatzen duen Kabi Alai izendatutako Inauterizale Kuttunari oroigarri bat ematen zaie omenaldiaren lekuko legez.

Urtero, Inauterietako korporazio gisa, **parodia honetan parte hartzen duten pertsona gehienak gizonezkoak dira hiru emakumezko izan ezik.**

Udal korporazioa parodiatzeko ardura Kabi Alai elkarte gastronomikoaren esku gelditzen da. Honetarako, gonbidapen zabal eta ireki bat egiten da, ondorioz korporazioa bazkideak diren pertsonak eta bazkideak ez direnak osatzen dute.



4 <https://ataria.eus/tolosa/1582211903882-ostegun-gizena-2020-omenduak>

On Ostegun Gizen konpartsaren Omenaldia⁵

On Ostegun Gizen Konpartsak **Ibañez Gozonako Kontxi Mendizabal eta familia omendu ditu.** Omenaldi horretarako goizeko 11:00etan txaranga, txerrimobila, harakinak eta txerri-animatzaileak Ibañez gozotegira hurbildu dira eta bertan Kontxi Mendizabal eta familia omendu dute egiten duten lanagatik eta konpartsarekin izan duten jarreragatik.

Kasu honetan, **omendutako pertsona emakumea izan da**, eta bere lana omendu izan nahi dute. **Omenaldia burutzen duen txaranga ez da parekidea**, hain zuzen ere, txarangako kide guztiak gizonezkoak direlako eta pertsonai nagusiak (harakinak eta txerri-animatzaileak) ere ez. Aldiz, omenduari dagokionez **izendapen honek berdintasuna bultzatzen duela esan daiteke.** Hau da, omendua emakumezkoa izan da, herriari eta inauteriei eskainitako konpromisoa dela eta. Berdintasuna bultzatzen duen izendapena dela diogu, hain zuzen ere, emakume baten lana, konpromisoa eta irudia bistaratzen dituelako. Aldi berean, omentzeko zergatien artean daude historikoki eta iruditegi kolektiboan emakumezkoek egozten zaizkien ardurak eta lanak gainditu izana (emakume langilea, konprometitua herriarekin, publikoa, eta parrandazalea....) eta, bestalde, ekintza honekin emakumezko baten irudia espazio publiko ohoretsu batean jartzea.

Hau da, momentuz ez dugu jakiterik izan omendua aukeratzeko On Ostegun Gizen Konpartsak berdintasun irizpiderik duen.



⁵ <https://ataria.eus/tolosa/1582215664460-incansables-txarangak-jaso-du-kabi-alai-kuttuna>

Hedabideetan

Hedabideei dagokionez, Tolosako Atarian inauteriei buruzko eta berdintasuna edo genero ikuspegia duten hainbat artikulua argitaratu dituzte aurten. Aipa ditzakegu, Silvana Ostizari egindako elkarrizketa, berdintasunaren alde emandako pausuen inguruan, edo Lierni Carrera Iraolari egindakoa, Inauterizalearekin inauterietan moztarra sortzearen eta jostunaren garrantziaren inguruko hausnarketak jasotzen dituena, baita txupinazoaren inguruko genero irakurketa ere.

Adibide hauek irizpide hartuta, Tolosako Atariak inauterietan emakumeei ahotza ematen die, inauterien inguruko artikuluetan eta kroniketan genero ikuspegia txertatzen dute (emakumeek egiten dituzten jardura edo ekintzak bistaratuz, gertatzen denaren inguruko genero hausnarketa eginez, eta abar) eta erabiltzen dituzten argazkietan emakume eta gizonen presentzia zaintzen dute, baita emakumeak ohikoak ez diren ekintzetan argitaratu ere.

Sare sozialetan Tolosako Inauteriek (Twitter @tolosakoinauteria, #tolosakoiñauteriak, Facebook @tolosakoinauteriak20, Instagram #tolosakoiñauteriak eta youtube kanala) udalaren eskutik bere espazioa izan dute.

Sare sozialetan, jakina denez, argazkiek gehienetan testua baino garrantzia handiagoa dute, hau dela eta irudietan emakumeak eta hauen aniztasuna bermatu dela esan daiteke. Horretaz gain, berdintasun-arlotik indarkeria matxistaren aurka bultzatutako kanpainentzako erakuslehoak izan dira.

Bestalde, berdintasuna edo genero begiradak ez du garrantzia handirik sare sozial horietan, ez gaiaren inguruko albisteak sortzeko orduan ezta gaiaren inguruko trataerak, hau da, twittak, edo albisteetan ez da genero irakurketarik sumatzen. Sare sozialak informatzeko tresnak izateaz gain sentsibilizazio tresnak ere izan daitezke.

Berdintasun ikuspegitik ondorio batzuk

Liburuxka eta esku-orria

TXALOTZEKOAK	HOBETZEKOAK
Hizkuntza ez sexista erabiltzen da, bai irudietan baita testuetan ere.	Emakumeen aniztasuna irudikatuko dituzten irudi gehiago sartu, adibidez txosten honetan erabili den azaleko irudi a bezalakoak.
Indarkeriaren aurkako mezuak argi eta garbi agertzen dira.	Jaietako gidak egiteko udalak egien duen kontratazioan berdintasun-irizpideak ezartzea.
Gida sortzen duen enpresak jada berdintasun- irizpideak integratuak ditu bere zereginean.	

Kartela

TXALOTZEKOAK	HOBETZEKOAK
Sortzaileari kartela sortzeko berdintasun irizpideak argi helarazten zaizkio.	Kartelaren sorkuntzan berdintasun irizpideak bermatzen direla ziurtatu.

Agerraldiak

TXALOTZEKOAK	HOBETZEKOAK
Agerraldi guztietan parekidetasuna barneratuta dago.	Kuttuna izendapenean egon daiteke gizon eta emakumeen arteko arrakala historikoa murriztea. Horretarako, udalak gomendatu ahal dio Kabi Alairi omenduak izendatzeko irizpideen artean berdintasun irizpideak txertatzea.
Udal agerraldietan indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko mezua argiak dira.	Udalak gomendatu ahal dio Kabi Alairi inauterietako udal korporazioa parekideagoa izatea.
On Ostegun Gizen konpartsak emakume bat omendu du.	Udalak gomendatu dezake On Ostegun Gizen txaranga gizontzuek bakarrik osatuta dagoen honetan, emakumezkoak txertatzen joatea.
	Kuttunaren agerraldian, udalak gomendatu dezake, indarkeriaren kontrako eta jai berdinezaleen aldeko mezua eta sinboloak helaraztea.

Hedabideak

TXALOTZEKOAK	HOBETZEKOAK
Atariak barneratua du bere lan egiteko moduan berdintasuna eta genero irakurketa.	Udaleko sare sozialak sentsibilizazio-tresnak bezala erabili eta genero irakurketak gehitu bere mezuetan.
	Gomendatu jaien inguruan berriak ematen dituzten hedabide guztiei berdintasun- eta genero-irakurketak egitea.

3. EGITARAUA

Pregoia eta txupinazoa⁶

Lehenbizi inauterietako txupinazoa eta pregoilariak nola erabakitzen diren azaldu behar da, hain zuzen ere, tradizionalki momentu hau Kabi Alai elkartearen esku gelditu da. Alde batetik, elkarteak aukeratzen duen Kabi Alai Kuttuna izaten da txupina balkoitik botatzen duena. Horretaz gain, Kabi Alaik osatzen duen udal korporazioaren parodiak balkoia okupatzen eta txupinarene aurkezpena egiten du.

Bestalde, Kabi Alai Kuttunaz gain aurreen beste eragile bat omentzea erabaki da, Jaizkibel konpainia (Hondarribiko Alardeko konpainia misto bakarra). Kabi Alai elkarteak azken urteotan antolatu ohi duen parodian Jaizkibel konpainiaren erreplika bat Plaza Zaharrera ekarri nahi izan du.

Txupinazoaren deskribapena

Lehenbizi Patxi Amiano, Itsaso Urdampilleta, Iñigo Zabaleta eta Ainhoa Onsalo Kabi Alaiko ordezkariak atera dira balkoi zentralera Inauterietako korporazioa parodiatuz, urtero bezala. Patxi Amianok (alkate bezala) hitza hartu du. Lehenbiziko hitzak Incansables txarangarentzako izan dira, ondoren Itsaso Urdampilleta zorionak zuri abesten hasi da, plaza aho batez jarraituz.

Jarraian, gizon ahots batek (munizipalak izango balitz bezala) plazara Konpañia bat sartuko dela abisatu du. Modu honetan Jaizkibel konpainia plazara sartu da aurrean emakume munizipalez mozorratutako gizon talde batek bidea irekitzen ari zela. Jarraian Itsaso Urdampilleta, inauterietako zinegotziak, Jaizkibel konpainiari hitza eman dio. Jaizkibel konpainiako ordezkariak, gizon batek, orduan San Joanetan eskopetari gizon eta emakumek nola parte hartzen duten goraipatu du. Itsasok, berriz hitza hartu du eta Jaizkibel Tolosako inauterietan urtero parte hartuko duten galdera luzatu die, Jaizkibel konpainiak ahots batez Bai erantzun du. Gero, berriz, Itsasok herriari galdetu dio ea herriak Jaizkibel konpainia ofizial bezala onartzen duen eta plazak ahots batez ere Bai erantzun du. Itsasok jarraian Tolosako festetan “ofizialak” izatera pasako direla adierazi die. Modu honetan Jaizkibel konpainia plaza utzi du.

“badugu konpainia ofizial bat gure festen parte izango direnak” [Patxi Amiano, Inauterietako alkatea].

Jaizkibel konpainia plaza utzi ostean, Kabi Alai Kuttuna izendatutako Incansables txarangako ordezkariak balkoia okupatu dute: Jesus Mari



⁶ <https://ataria.eus/tolosa/1582279072087-inauterien-hasierako-zuzeneko-emanaldia>

Moneo, Manuel Ropero, J. Francisco Esnaola eta Joaquin Ortegak, lauak gizonak. Beraiei lagunduz inauterietako korporazioa eta Jaizkibel konpainia egon dira udaletxeko balkoian. Incansableseko ordezkariak txupina bota aurretik hainbat oihu bota dituzte (gora Inauteriak, gora Kabi Alai, gora Tolosa!), ostean txupina piztu eta algara hasi da.

Ondorioz

Txupinazoaren irudikapena ahal izan den parekidea izatea saiatu da. Alde batetik, balkoi zentralera atera den Inauterietako Kabi Alai korporazioa parekidea izan da, (bi emakume eta bi gizon). Horretaz gain, korporazioak hitza modu parekidean hartu du eta **lehenengo aldiz aritu dira bi emakumezko pregoilari.**

Txupinazoa bota zuen eragileak, Incansables txarangako ordezkariak, ez zuen irudi parekidea eman, txaranga 4 gizonak ordezkatu baitzuten. Horretaz gain, Incansables txaranga gizonak bakarrik osatutako taldea da. Beraz, kasu honetan txupinazoan dagoen genero arrakalaren zor historikoa murriztu beharrean handitzen dela esan daiteke.

Bestaldetik, txupinazoan, **Jaizkibel konpainia omentzea** ere erabaki zen. Modu horretan jaietan emakumeek berdintasunean parte hartzeko eskubidea 20 urtez baino gehiagoz aldarrikatzen ari den eragilea omendu zuten **eta hitza ere eman zioten.** Ataria telebistako Itzea Urkizu txupinazoaren emanaldian esan zuen bezala: *“Conchi Medizabal omendu dute, inauterizale emakumezko bat, ez dira asko izaten eta susmoa dut gaurko txupinazoa ukitu feminista izango duela ze ikusi dugunez Kabi Alai elkarteak Jaizkibel konpainia omenduko duela, beraz oso pozik gaude hemendik [...] emakumeek ez dute sekula oraingo presentziarik izan”*.⁷

Beraz, **laburbilduz:**

- Txupinazoaren momentua parekidea egiten saiatu da, baita berdinzalea izan zedin ere.
- Txupinazoko aurkezleen taldea parekidea izan da, hauen hitza hartzea ere.
- Kabi Alai Kuttunaren kasuan ez da aukeraketa berdinzalea izan. Aldiz, txupinazoan Jaizkibel konpainia omentzeak txupinazoa berdinzalea izatea ekarri du. Modu honetan, egon zitekeen desoreka orekatuz.
- Berdintasunaren aldeko aldarri eta mezu argiak egon dira lehenengo aldiz inauterietan.

Musika taldeak⁸

Atal honetan Txosnagunean eta gauean zehar programatutako kontzertuak izan dira kontutan.

Txosnetako arratsalde gaueko giroari dagokionez gazteei zuzendutako musikak arreta berezia merezi du. Gaueko kontzertuetan, askotan, estilo desberdinak gurutzatzen dira, berbena, rock, punk, DJ-ak, ska, besteak beste. Gazteen identitateak aisialdian egiten dutenari lotuta eraikitzen dira, eta haien erreferente nagusiak ere esparru hauetan dituzte: musikariak, kirolariak, etabar. Baina sektore hauetan, gizarteko beste esparru batzuetan ematen diren hierarkizazio eta balore sozialak antzematen dira, eta generoari dagokionez, oraindik oso

⁷ <https://ataria.eus/tolosakotxoznabatzordea/1582279072087-inauterien-hasierako-zuzeneko-emanaldia>

⁸ <https://www.facebook.com/tolosakotxoznabatzordea>

maskulinizatuta daude, erreferente gehienak gizonezkoak direlarik. Hau dela eta garrantzitsua da gai hau begirada kritikoarekin aztertzea.

Hurrengo lerroetan egiten den hausnarketa datu kuantitatiboetan oinarritutako irakurketa da.



Txosnaguneko Kontzertuak eta Gaueko kontzertuak

Inauterietako programazioan agertzen diren taldeak hartu ditugu hizpide, ondorioz aztertutako talde guztiak txosnagunean jo zutenak izan ziren, beraz, kontzertu horien antolakuntza Tolosako Txosna Batzordearen esku egon da. Bassagain soinu sistemaren kamioi ibiltaria izan ezik.

Urtero bezala kontzertu eskaintza zabala izango da txosnagunean, ostegunetik astelehenera. Eskualdeko talde zein eskualdez kanpoko talde eta DJekin osatu dute aurtengo kontzertu sorta.⁹

Kontzertuen analisia egiterako orduan, musika taldeen sexu osaera bakarrik hartu dugu kontutan, hau da, ez da bestelako irizpiderik kontutan hartu analisi hau egiterako orduan.

Ze irizpide aztertuko ditugu:

- Inauterietan jo eta abestu duten musikari guztiak sexuaren arabera.
- Musika taldeen osaketa sexuaren arabera.

Bi irizpide hauen arabera txosnaguneko gaueko **kontzertuak oso maskulinizatuak** daudela esan dezakegu. Hau da, oholza gehien bat mutilek okupatu dute. Neskei eta bestelako generoak edo adierazpenei leku txikia emanez.


Hala ere, azpimarratu nahiko genuke, kontzertuen artean neskez bakarrik osatutako musika talde bat programatu zela, [Leizeak taldea](https://www.facebook.com/Leizeak/)¹⁰. Hau azpimarratzekoa iruditu zaigu, oso gutxitan aurkitzen direlako holako taldeak gaueko kontzertuen programazioetan.

⁹ <https://itzalpe.eus/index.php/2020/02/10/aurtengo-inauterietako-egitaraua-zabaldutako-tolosako-txosna-batzordeak/>

¹⁰ <https://www.facebook.com/Leizeak/>


Hurrengo grafikoetan ikus daiteke esandakoa datuetan. Hau da, txosnako kontzertuetan, musikari eta abeslariekin, guztira 60 lagun egon ziren. Horietako %22 ak emakumeak eta % 78a gizonezkoak, bestelako genero adierazpiderik duten pertsonarik ez da egon.

2020ko INAUTERIEKOTAKO GAUEKO KONTZERTUETAKO MUSIKARIAK SEXUAREN ARABERA




Musika taldeen osakerari dagokionez, 15 musika taldeetatik bakarrik %20, hau da, 3 talde izan ziren misto (neskez eta mutilez osatuak), %7 edo beste modu batean esanda talde 1 neskez bakarrik osatuta zegoen eta beste 11k, %73a, mutilez bakarrik zeuden osatuta.

2020ko MUSIKA TALDEEN OSAERA SEXUAREN ARABERA



Talde mistoen kasuan (3 talde), 2 talde maskulinizatuak (hau da, taldearen gehiengoa gizonez osatua) ziren eta 1 feminizatua (taldearen gehiengoa neskez osatua). Beraz, talde mistoen artean, misto maskulinizatuak %67 izan da eta feminizatua %33a.



Karroza eta konpartsak

Lehiaketarako epaimahaia.

2020ko Karrozen eta Konpartsen lehiaketaren oinarrietan jasotzen den legez, epaimahaia zazpi kidek osatuko dute: Tolosako Udalaren bi ordezkari eta Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketako ohizko parte hartzaileen bost ordezkari: aurreko urteko irabazleak. Epaimahaiak emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango du. Ahal den heinean, sexu bakoitzak %40ko gutxieneko ordezkaritza izango du.

Dirudienez ez da jaso ze pertsonak ordezkatu zuten iazko talde irabazlea, baina 5 lagunek parte hartu zuten. Aldiz, badakigu nortzuek ordezkatu zuten udala; jaietako teknikariak, Xabier Cañasek, eta berdintasun-teknikariak, Mertxe Fernandezek. Datu horien arabera, eta teknikarien iritziz, epaimahaiaren gehiengoa emakumezkoak izan zirela esan daiteke. Hala ere, erregistro zehatz baten faltan ezin da ziurtatu zenbateko gehiengoa izan zen. Jaietako teknikariak aurreko urteko irabazleak epaimahaia izateko gonbidatzen dituenean parekidetasun irizpidearen berri ematen die.

Epaimahaiarentzako berdintasun irizpideak

2015ean Berdintasun arloak konpartsak eta karrozak baloratzeko berdintasun irizpideak sortu zituen¹¹; irizpide horiek ordutik indarrean daude.

Epaimahaia osatzean, kide guztiei ematen zaie irizpide horien berri, eta horien garrantziaz ohartarazten zaie, zalantzarik duten ere galdetzen zaie. Aurten bi bilera egin dira epaimahairekin: lehenean oinarriari, hautaketa-sistemari eta berdintasun-irizpideei buruzko informazioa, dokumentazioa eta azalpenak eman zitzaizkien. Horretaz gain, "Joka Sano,

¹¹ Irizpide horien dokumentua gehigarrietan atxikitzen da.

#LIBRENonahi” kanpainako euskarriak ere banatu zitzaizkien. Bileran egon zen berdintasun-teknikariaren iritziz, nabarmena izan zen epaimahaiko ordezkariak berdintasunaren alde izandako jarrera. Dirudienaz berdintasun-irizpideak gero eta barneratuago daude, eta aurten inork ez ditu zalantzan jarri.

Irizpideek honako helburuak dituzte:

- Tolosako jai-eremuan, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunezko harremanak indartzea.
- Emakumezkoen parte hartzea eta protagonismoa nabarmentzea, kultur eta jai dinamiketan, eta, oro har, eremu publikoan.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta sexu-genero aniztasunaren aldeko mezu sinbolikoen eta kulturalen sorrera sustatzea jaietako jardueretan.

Zer da baloratu behar dena berdintasun irizpideen arabera:

- Oro har, modu positiboan baloratuko dira harreman parekoak islatzen dituzten karrozak eta konpartsak, edota emakumezkoen partaidetza bultzatzen dutenak eta emakumeenganako edo bestelako identitate sexualenganako pentsamolde diskriminatzaileak saihesten dituztenak (lesbianak, homosexualak, transexualak, intersexualak ...)

Dokumentuak ere jasotzen du zer ez den berdintasuna:


- Emakumeen gorputzaren balore sexuala nabarmentzea gainerako giza gaitasun eta ezaugarrien gainetik.
- Mezu baztertzailerak, sexistak, homofoboak eta arrazistak bidaltzea.

Parte hartzearen analisia

2020ko lehiaketan guztira 63 karroza eta konpartsa aurkeztu dira. Guztira 1.169 pertsonek parte hartu dute¹². Karroza edo konpartsa bezala izena ematean, karroza edo konpartsa bakoitzak bere kideen kopurua eta sexua adierazi behar du.

Oinarrietan jasotzen den bezala parekidea "Partaideen erdia edo gehiago emakumezkoak badira" da. Hau da, %50a.

Aurten, datuen arabera, lehiaketara apuntatu diren karroza eta konpartsen % 48 parekidea izan da, hau da, 63 taldeetatik 29 parekideak izan dira. Honek ez du esan nahi beste karrozetan emakumezkoak egon ez denik, baizik eta emakumeen parte hartzea ez dela % 50era heldu.



¹² Analisirako zerrenda gehigarrietan atxikitzen da.


Irabazleen analisia

Modalitatearen arabera hauek izan dira aurtengo sarituak:

- **Karrozen lehen saria:** “Ero-Kudeiro”
- **A taldeko (20 lagun baino gehiago) konpartsen lehen saria:** “Gure zirkoa”
- **B taldeko (11 eta 20 lagun bitartean) konpartsen lehen saria:** “Minions”
- **C taldeko (1 eta 10 lagun bitartean) konpartsen lehen saria:** “Indar armatuen eguna”
- **C taldeko (1 eta 10 lagun bitartean) konpartsen aipamen berezia:** “Erregin hinduak Tolosan”
- **Karroza/konpartsa berdinzaleenaren saria:** “Sufragistak”



Sarituen artean, emakumeen parte hartzea gizonezkoena baino askoz altuago izan da, grafikoan ikusten den bezala % 66 emakumezkoak dira.




	TALDEDEEN OSAKETA SEXUAREN ARABERA		
	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
ERO KUDEIRO	4	6	10
GURE ZIRKOA	20	4	24
MINIONS	10	5	15
INDAR ARMATUEN EGUNA		8	8
ERREGIN HINDUAK TOLOSAN	12	4	15
SUFRAGISTAK	6		6
GUZTIRA	52	27	79
%	65	34	100,00

Karrozen eta konpartsen lehiaketa-oinarrietan argi jasotzen da berdintasunaren eta parte hartze berdinezalearen aldeko konpromisoa. Horrela jasotzen da oinarrietan:

Oro har, modu positiboan baloratuko dira harreman parekoak islatzen dituzten karrozak eta konpartsak, edota emakumezkoen partaidetza bultzatzen dutenak eta emakumeenganako edo bestelako identitate sexualenganako pentsamolde diskriminatzaileak saihesten dituztenak (lesbianak, homosexualak, transexualak, intersexualak). Balorazioa egin aurretik, epaimahaikideei berdintasun irizpide horien xehetasunak helaraziko zaizkie.


Irabazi duten karroza eta konpartsa gehienak mistoak izan direla (% 67) esan dezakegu; hau da, 6 taldeetatik 4 gizon eta emakumez osatuta egon dira. Bat emakumez bakarrik osatua izan da (berdintasun-saria eraman duena, Sufragistak) eta beste bat gizonez bakarrik osatuta egon da (Indar Armatuaren eguna konpartsa).



	NESKEZ	MUTILEZ	MISTOAK
ERO KUDEIRO			1
GURE ZIRKOA			1

MINIONS			1
INDAR ARMATUEN EGUNA		1	
ERREGIN HINDUAK TOLOSAN			1
SUFRAGISTAK	1		
GUZTIRA	1	1	4
%	17%	17%	67%

Saritutako 4 Karroza eta konpartsa mistoak izan ziren, 1 orekatua (hau da, parekidea) eta beste 3ak feminizatuak (hau da, % 60 baino gehiago emakumez osatuta).



	MISTOAK			% >mutilak
	feminizatua	maskulinizatua	orekatua	
Ero Kudeiro			1	55,5
Gure zirkoa	1			16,6
Minions	1			33,3
Erregin hinduak tolosan	1			26,6
GUZTIRA	3	0	1	
%	75%	0%	25%	

Berdintasun-saria

Inauterietako karroza eta konpartsen Berdintasun Saria 2015ean sortu zen Berdintasun arloaren ekimenez. Berdintasun Behatokia sortu aurretik, inauterietan berdintasuna sarituko zuen sari bat falta zela ondorioztatu zen, ondorioz, sari hau sortu zen.

Sari honen bitartez emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuneko harremanak indartu, emakumezkoen parte hartzea eta protagonismoa nabarmendu eta berdintasunaren eta sexu-genero aniztasunaren aldeko mezu sinbolikoen eta kulturalen sorrera sustatzea bultzatu nahi da. Lehiaketan bertan, bazterketa eta sexismoa bultzatu ditzaketen adierazpenak identifikatzeko irizpideak ematen zaizkio epaimahaiari, jarrera ez sexistak bultzatzen dituzten karrozak eta konpartsak saritzeko pausua emateko.

2020an, aurreko atalean adierazi den bezala, **Sufragista taldeak** irabazi du berdintasun-saria. Talde honen aldeko saria ahobatezkoa izan zen, nahiz eta taldea lehiaketan izena emana ez egon. Gai honek agerian utzi zituen bi kontu: alde batetik, saria emateko zeuden aukera gutxi (epaimahairen iritziz); beraz, sari honen inguruko informazioa gehiago eta lehenago zabaldu behar zela; eta bestaldetik, lehiaketan izena ematea gehiago bultzatzea.



Epaimahaiak sari hau ematearen zergatien artean “Eremu publikoan eta, zehatzago, jai eremuan emakumeen parte hartzea eta protagonismoa bultzatzeagatik, berdintasunaren eta emakumeen eskubideen aldeko mezuak zabaltzeagatik eta aldarrikapen esplizitua egiteagatik”¹³ saritu zuen talde hau. Horretaz gain, “inauteri girora egokitze egin duten lana” ere azpimarratu zuten.

Berdintasun-saria jasotzen duen karroza edo konpartsak txapela morea jasotzeaz gain, “banderola berdinzalea” ematen zaio aurreko kategoria berean saritua izan zen taldearen esku, kasu honetan Akelarre taldea izan zen. Banderola hau, urtez urte aurreko urtean irabazi zuen karroza edo konpartsa berdinzaleenak eramango du, eta eskuz esku igaroko da. Aurten, iaz irabazi zuen “Erdi aroa” (aurreko urtean Akelarre izenarekin) karroza atera da iaz irabazitako banderola morearekin.

¹³<https://udala.tolosa.eus/eu/berriak/kultura-gazteria-jaiak/%E2%80%98ero-kudeiro%E2%80%99-karrozak-eskuratu-du-2020ko-karrozen-eta-konpartsen>

Berdintasun ikuspegitik ondorio batzuk

Txupina

TXALOTZEKOAK	HOBETZEKOAK
Txupinazoaren momentua parekidea egiten saiatu da, baita berdinzalea izan zedin ere.	Aurten izan den sentsibiltatea eta jarrera urtez urte errepikatzea modu sistematizatu batean.
Txupinazoko aurkezleen taldea parekidea izan da, hauen hitza hartzea ere.	
Omenduen kasuan Kabi Alai Kuttuna ez da ez berdinzalea, ezta parekidea izan. Aldiz, txupinazoan Jaizkibel konpainia omentzeak txupinazoa berdinzalea izatea ekarri du. Modu honetan, egon zitekeen desoreka orekatuz.	
Berdintasunaren aldeko aldarri eta mezu argiak egon dira.	

Musika

TXALOTZEKOAK	HOBETZEKOAK
Emakumez soilik osatutako musika talde bat programatzeko esfortzua egin da.	Programatzen diren musika taldeak aukeratzeko berdintasun irizpideak adostu ezker, hurrengo urteetan programatutako kartela parekideago izango litzateke.
	Mutil eta emakume estereotipoak gainditzen edo apurtzen dituzten taldeak programatzea eta ikusgai egin.

Karroza eta konpartsak

TXALOTZEKOAK	HOBETZEKOAK
Epaimahaia orekatua izateko neurriak, lehiaketako oinarrietan jasota daude.	Komenigarria litzateke epaimahaikideen erregistroa izatea. Parekidetasun neurriak betetzen diren jakiteko eta epaimahairen osaketa ezagutzeko.
Parte hartzaileen sexua jasotzen da izena emateko inprimakian.	Berdintasun-saria berdintasunaren aldeko adierazpen esplizituekin lotzen dela dirudi. Berez, ongi legoke ziurtatzea berdintasunaren aldeko adierazpen esplizituetatik haratago ere berdintasuna beste adierazpen batzuekin lotzen dela.

Berdintasun-saria poliki errotzen doa eta komunikatiboki hedabide ezberdinetan garrantzia ematen zaio.	Parte hartzaileen sexuaren araberako zenbaketa sistematikoki jaso.
Sarituen artean emakumeen parte hartzea oso handia izan da eta horrek berdintasunaren aldeko pausuak indartzen dituela esan daiteke. Nolabait, emakumeak sarituen artean ikusteak, beti beste emakumeak parte hartzera animatzen ditu, parte hartzea sustatuz.	Berdintasun irizpideak beste sarietara hedatzea ongi legoke. Hau da, karrozak eta konpartsak edozein saria dela eta baloratzeko momentuan berdintasun irizpideak kontutan hartzea.
Saritutako karroza eta konpartsen artean ez dago emakumeekin edo horren irudiarekin humore matxista egiten duen talderik.	
Parte hartze parekidea saritzen da.	

4. INDARKERIA MATXISTA

Kanpainaren xehetasunak (bideoa eta euskarriak)

Inauterietan ere indarkeria matxistaren kontrako kanpaina bat bultzatzen da udaletxetik. Kanpaina hau Berdintasun arloak zuzentzen eta diseinatzen du.

2020ko Joka Sano kanpainak honako euskarriak izan ditu eta eremu hauetan zabaldu da:

- **Joka sano! Pegatinak eta #LIBRENonahi Kalkomaniak:** udal eraikin publiko guztietan eskura egon dira (Kultur Etxea, UDATE, Musika Eskola, Gizarte Zerbitzuak). Horretaz gain, Gazteria Departamentuak antolatuta, Aisialdi taldeei, Botiltzarrean, euskotren geltokian, urtero / LAKET elkarteak gazteekin egiten duen esku-hartzearen baitan banaketa egin zuen eta Karroza eta konpartsen mahaikideen artean banatu zen.

#LIBRENonahi 



- **Puntu moreak:** udal eraikin publiko guztietan, komertzio eta tabernetan eskura egon dira.



- **Udaltzaingoaren 24 orduko telefonoa:** herriko panel informatiboetan eta baita herriko panel elektronikoetan jarri da.
- **Indarkeriaren aurkako gida:** udal eraikin publiko guztietan egon da.



- **Kartelak:** herriko panel elektronikoetan jarri dira.

- **Bideoa**¹⁴: sare sozialetatik zabaldu da, baita herrian dauden panel elektronikoetan ere.



Bideoa Komunikazio arloak enkargatzen du eta edukia Tolosaldeko Asanbladarekin kontsultatzen da. Azkenengo urte honetan denboraz justu ibili dira bideoaren kontrasterako, beraz, lan egiteko modu honekin eroso eta ongi lan egin ahal izateko bideoen zirriborroak garaiz eta denborarekin egitea komeniko litzateke.

Bestaldetik, orokorrean egin den kanpainaren inguruko baloraziorik ez da jaso oraindik, balorazio formala (Tolosaldeko Asanbladaren eta teknikarien arteko bilera) egin gabe dagoelako.

Indarkeria-protokoloak

Inauterietan bi indarkeria-protokolo daude indarrean, alde batetik udaletxeko indarkeria-protokoloa, herri mailakoa dena, eta bestalde Txosnagunetik diseinatu eta txosnagunean indarrean dagoen protokoloa.

Txosnagunekoa

Txosnaguneko protokoloa txosnaguneko eremuan du eragina eta protokoloan bertan jasotzen den bezala: *“Eraso ezberdinen aurrean defentsa mekanismo bat martxan jartzea da helburua. Ikusita dauden defentsa protokoloak erasoen ondorengo erantzunetan zentratuak daudela, pausu bat aurrera egin nahi izan dugu”*¹⁵. Hau da, protokolo horrek eraso gertatzen den unea identifikatu eta momentu horretan neurriak hartzea du helburu.

Eraso bat gertatu ezker, txosnako barran lanean daudenek dute protokoloa aktibatzeke ardura. Hartzen diren neurriak, laburbilduta, honakoak dira:

- Musika etengo da eta argi moreak piztuko dira.
- Erasoa ematen ari bada, eraso geldituko da.
- Erasotzailea identifikatu ostean txosnagunetik kaleratua izango da.
- Erasotuari asistentzia emango zaio eta txosna barrura sartzeko eskaintza egingo zaio.

Protokolo honen garrantzia azpimarratu behar da, hain zuzen ere, jende asko biltzen duen parranda gunean indarrean dagoelako, eta ezaugarri propioak dituzten gunek dira (parranda,

14 <https://www.youtube.com/watch?v=awt8jAjDEAQ>

15 <https://itzalpe.eus/index.php/2020/02/10/aurtengo-inauterietako-egitaraua-zabaldu-du-tolosako-txosna-batzordeak/>. Helbide honetan Txosnaguneko protokoloa topatu daiteke.

desinhibizioa, drogak, jende pilaketa, arauen lausotzea, etabar). Beraz, Txosna Batzordeak gai honen inguruan neurriak hartzea oso baikorra da.

Txosna Batzordetik garrantzi berezia eman nahi zaio erasoen aurkako protokoloari. Adierazi dutenez, kontziente dira "bestelako" parranda bat proposatu arren eraso ugari ematen direla txosnagunean. Honen aurrean erasoak ematen diren uneen horiek geratzeko baldintzak sortzea dute helburu¹⁶.

Horren harira, txosna batzordeko ordezkari batek (Ander Aldalur) Behatokiari informatu zion bezala, protokoloa behin baino gehiagotan aktibatu behar izan zen, batez ere lgandean eta Astelehenean. Dirudenez aktibatzearen arrazoiak, ia beti, ukituak eta bortxa egoerak izan ziren neskaren ezetzaren aurrean.

Txosna batzordeko ordezkari honen arabera, protokoloa eraginkorra da, hain zuzen ere, kontzertuak eta musika geratzea eta argiak piztean. *Erasotzailea bere gotorretik publikora salto batean pasatzeak sortzen duen egoera positiboa da, bai egoera salatzeke zein pertsona hori txosnagunetik kanporatua izateke ere.*

Hala ere, gai honetan tinko eta irmo esku hartzeak eta neurriak ezartzeak ez du esan nahi txosnaguneko antolatzaileek ez dituztenik beraien tresnen inguruan hausnartzen edo zalantzarik izaten. Dirudenez: *Gure betiko beldurra da egoera biolentoak sortzearena eta erasotzailea txosnako boluntarioei ere erasotzen hastea. Aurrez aipatutako "metodo" hori eraginkorra da bide honetan. Hala ere, beti daukagu beldur hori alkohol eta droga kontsumoaren eraginpean daudelako 100% kasuetan erasotzaile hauek txosnagunean.*

Honetaz gain, txosnaguneko antolatzaileak adin ezberdinetako neska mutilek osatzen dute eta belaunaldi gazteagoen artean gai honekiko dagoen sentsibilizazioa eta identifikatzeko gaitasuna handiagoa dela ohartzen da Ander.

Nik 33 urte ditut eta 15 urte daramatzat txosnagunean. Esan behar da, txosnetan batez ere jende gaztea dagoela; 16-25 urte. Nire garaitik asko aldatu da. Batez ere ezker aldeko talde, erakunde...-tan dabilzan gazteek sentsibilitate handia daukate gai honekin. Mutil zein neska. Hau ez zen horren nabaria duela urte batzuk [...] esan liteke lehen "normalak" ziren gauzak orain ez direla horrela. Bestalde, nesken sentsibilitate-maila ere asko handitu da. Orain ez urte asko onartzen ziren portaera asko orain salatzen animatzen dira. Eta horrela ez bada, badakite jasan dutena eraso bat izan dela identifikatzen.

Udalekoa

Tolosako udalak 2013tik sexu- eta genero-indarkeriaren aurkako protokoloa¹⁷ du. 2017 epealdian "Udal zerbitzuen betebeharrak" protokoloa jai testuingurura egokitzea izan zen. Aurten, 2020an, Jailetako indarkeria protokoloa berraztertu da Tolosaldeko Asanblada Feministarekin intentsitate baxuagoko erasoei publikoki nola erantzun adosteko.

Protokolo horretan udal-zerbitzuen betebeharrak zeintzuk izan behar duten azaltzen da. Batetik, emakumeari eman beharreko asistentzia, festaz kanpoko kasuen berdina izango da. Bigarrenez, egoera/informazioari eman behar zaion tratamendua azaltzen da. San Joanetan, udaltzaingoak informazio jaso ondoren, Alkateari, Jailetako eta Berdintasun zinegotziei gertatutakoaren berri emango diela jasotzen da. Hirugarren atalak, deialdi publiko-bateratuari

16 <https://itzalpe.eus/index.php/2020/02/10/aurtengo-inauterietako-egitaraua-zabaldu-du-tolosako-txosna-batzordeak/>

17 <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/berdintasuna/programa-eta-proiektuak/sexu-eta-genero-indarkeriaren-aurkako-i-udal>

egiten dio erreferentzia. Udalaren, Mugimendu Feministaren eta Tolosako emakume elkartearen artean deialdi bateratu bat egingo da. Kontzentrazioa erasoa gertatu ondoren 24 ordura egingo da, 19:00etan Udaletxe aurrean.

Berriazko protokolo horren bitartez eragile desberdinen jarduna arautu da: udal eragileak, Mugimendu Feminista eta emakume elkarteak eta jaietan parte hartzen duten eragileak.

Protokolo hori onartzeak jaietan indarkeria sexistaren gaian balio handiko urrats bat gehiago ematea esan nahi du: udalak jaietan erantzun koordinatu bat emateko konpromisoa hartzen du, lehentasunezko gaia dela aitortuz.

2020ko inauterietan ez da protokoloa aktibatu. Ondorioz ez dago protokolo honen baloraziorik.

Berdintasun ikuspegitik ondorio batzuk

TXALOTZEKOAK	HOBETZEKOAK
Txosnagunean protokolo bat dute eta sozializatzen dute.	Gaia sentsibilizatzeko tresna gehiago aztertu.
Udalak indarkeria matxistaren kontrako protokolo gaurkotua eta egoerara egokitua du, baita sozializatua ere.	Txosnagunekoekin harremanak eraiki indarkerian izan ahal dituzten zalantzak argitzeko edo gai horretan tresna gehiago emateko.
Joka Sano kanpaina egonkortuta dago.	

5. SINERGIAK¹⁸

Atal honetan, erabilitako metodologiaren eta lortu nahi ziren helburuen ondorioz orain arte sortu diren sinergiak aipatu eta azaldu nahi ditugu. Momentuz, eraikitako sinergia esanguratsuenak aipatuko ditugu:

- Alde batetik, Behatokiaren izaera hedatzailea dela eta, hau da, poliki-poliki bere eragin eremua handitzen joateko duen ezaugarriengatik **Larramendi Auzoko jai batzordearekin** harremanetan gaude. Harremanetatik sentsibilizaziora eta azkenik elkarlanera jauzi egin da. Ondorioz, urtero auzoko batzordearekin harremanetan egon gara eta ondorioz 2019an jaietako txostena osatu zen San Joanekin egiten den bezala.
- **Tolosako Musika eskolarekin** 2020an zehar sinergiak eta zubiak eraiki ditugu. Tolosako jaietan emakume musikarien inguruan Behatokiak duen kezka eta ardura Musika eskolarekin partekatu zen 2019an zehar. Harreman horietatik, musika eskolan genero eta musikaren inguruko prestakuntza emango zaie bertako irakasleei 2021ean.
- **San Joanetako jai bileretan** Behatokiak ere leku bat izan du. 2019an zehar Behatokiak hainbat jai-bilera behatu zituen jai berdinzaileen txostena osatzeko beharrezkoa zuen parte-hartzeari buruzko informazio eskuratzeko.
- 2020ko Inauterietako txostena osatzeko, **inauterietako txostena-batzordearekin** harremanetan egon gara, batez ere beraien protokoloaren inguruko balorazioa jasotzeko.
- Proiektu honen indargunetako bat **genero zeharkakotasunerako** duen potentziala da, ondorioz **Kirolak eta Gazteria** arloko teknikariekin eta **komunikazio** arloarekin sinergia estuak ere landu dira azkeneko urteetan. Momentu batzuetan informazioa eskatzeko eta besteetan proposamenak, aholkuak eta egoeren diagnostikoak partekatzeko. Hala ere, beste arlo batzuekin ere, urteko emaitzen bileran, zeharkakotasuna lantzen da.
- Julen Caminos **musika programatzailearekin** ere elkarlanean aritu gara, hain zuzen ere, emakume musikariak programatzeko helburuarekin. Hau da, udalak 2019an adostu zituen kontratazio-kuotetara heltzeko, Jaiak eta Kultura arloan lan egiten duen programatzaileari honen berri emateko eta bere konplizitatea eskatzeko. kontaktu horiek oso positiboak izan ziren, programatzaileak errez ulertu zituen helburuak eta bat egin zuen.
- **Jabetza eskolarekin** elkarlana baino elkarreraginak egon direla esan dezakegu. Behatokitik emakume musikarien inguruko hausnarketak burutzen ari ziren momentuan, jabetza eskola aliatua bihurtu zen gai hau bere programazioan txertatuz. Horrela, emakume musikarien mahai-inguru bat antolatu zen, baita emakume musikarien inguruko hainbat ikastaro ere (rapa adibidez). Bide berdinetik, emakumez osatutako musika ekitaldi bat antolatu zen; emakume konposatzaileak erdigunean jarri eta mundu guztian ezagunak diren abestiak oholtzara ekarri zituzten.
- Sinergien atal honetan ezin dugu ahaztu Behatokiaren ekosistema propioaren sorrera, **jai arloaren kolidergoari** esker. Hau da, jai berdinzaileen aldeko Behatokiaren sorrera

¹⁸ Hainbat eragilek eta elementuk batera jardutea, ondorioztat bakarkako ondorioen batze hutsa baino ondorio ahaltsuagoa ematen duena izango litzateke (Euskaltzaindia).

berdintasun-arloaren ekimen bat izan zen, baina 2019an lidergo hau jai-arloarekin partekatzea erabaki zenean, Behatokiaren ekosistema sortzen hasi zela esan dezakegu.

- Atal honetan aipatu behar da **Kabi Alai** elkartearekin azkeneko momentuan sortutako lankidetzarako sinergia. Informazioa helarazteko eta elkar entzutean oinarritzen den elkarlanerako zubiak eraikitzen ari garela esan dezakegu.

6. ONDORIOAK

Jaiak, eta bereziki Inauteriak, Tolosako herritarrentzat herri-ondare direla nabari da; parte hartze handia dago, konpromisoa, harrotasuna, inplikazioa eta gauzak ongi egiteko jarrera ezin da ukatu.

Behatokiak, orain arte, modu zabalean aztertu dituen lehenbiziko inauteriak izan dira 2020koak. San Joanen azterketan inauteriak ataltxo bat izan zuen, baina aurten azterketa hori askoz sakonagoa izan da, Covid-aren ondorioz San Joanak ospatu ez direlako. Horregatik, Udalak erabaki zuen inauteriak izatea azterketaren erdigunea, eta horrela egin zen.

Inauteriak aztertzeko momentuan, San Joanekin egin den sistema berdina erabili da; hau da, San Joanetan aztertzen diren arlo gehienak aztertu dira inauterietan. Hala ere, Inauteriek dituzten berezitasunak ere kontutan hartu dira, eta azterketa honetan txertatu dira.

Orokorrean Inauterietan, aztertu ditugun arloak kontutan izanda (komunikazioa, egitaraua, indarkeria matxista), berdintasunaren alde pausuak ematen direla esan dezakegu. Azpimarratu nahiko genuke, halaber, pregoian parekidetasuna bermatzeko, berdintasun-mezuak helarazteko eta berdintasunaren aldeko jarrera aktiboa izateko egin den esfortzua.

Ildo horretan, azpimarratzeko beste gai bat, karroza eta konpartsak dira. Kasu horretan, parte hartzaileen datuei erreparatuz, parte hartzea parekidea da. Sariei dagokionez ere, aipatu behar da udala epaimahaia parekidea izateko esfortzuak egiten dela; horrez gain, 2015etik berdintasun-saria indarrean dago. Honi gehitu behar zaio udalak, parekidetasunaren alde, karroza eta konpartsak parekideak izateko esfortzuak egin eta neurriak hartzen dituela: karroza eta konpartsa parekideei dieta handiagoak ematen zaizkie.

Indarkeria matxistari dagokionez, inauterietan berdintasun-arlotik sentsibilizazio kanpainak abiatzen dira, eta indarkeriaren aurkako protokoloa ere garai honetarako egokituta dago.

Horretaz gain, San Joanetan gertatzen den bezala, komunikazioan eta agerraldietan hizkuntza eta iruditeria ez sexista erabiltzen dira, horretaz gain agerraldi publikoetan parekidetasuna eta jarrera berdinzaleak zaintzen dira.

Aldiz, txosna guneko gaueko musika eskaintza oraindik ere maskulinizatua dago. Eta bide berdinetik, Inauterizale kuttuna ere.

Bestaldetik, Behatokia abiatu zenetik hainbat sinergia eraiki dira bai udal barruan baita kanpoan ere. Sinergia horietako asko informazio eskaerarekin hasi ziren eta elkarlanean amaitu dute, beste batzuk hasieratik elkarlanerako izaera izan dute, baina kasu guztietan harrera ezin hobea izan da. Lan egiteko modu hau oso interesgarria eta aberatsa izan da, eta jaien eraldaketarako biderik egokiena dela erakutsi digu.

Orokorrean, **inauteriak gero eta berdinzaleagoak izateko aldaketak ematen ari direla ikusten da**. Hala ere, ez dakigu ematen ari diren aldaketa eta pausu horiek finkatuak eta aldaezinak diren. Horretarako, eman diren eta ematen ari diren aldaketa eta praktika onak ikustaraztea, balioan jartzea eta sistematizatzea garrantzitsua da, baita inauterietan emakumeen parte hartze handia ikusaraztea eta balioa nabarmentzea ere.

7. GEHIGARRIAK

Txosnaguneko kontzertuetarako erabilitako analisi taula

INAUTERIAK 2020 GAUEKO KONTZERTUAK	MUSIKARIEN SEXUA			TALDEAREN OSAERA							
	NESK AK	MUTIL AK	GUZTI RA	NESK EZ	MUTI LEZ	MISTOAK				GUZTI RA	% >Mutila k
						MIST OA	FEMINIZA TUA	MASKULINIZ ATUA	OREKA TUA		
ZIAKHUS (TXOSNAGUNEA)		1	1		1						100
LITTLE MARTIN SELEKTAH		2	2		1						100
ESTARLUS		5	5		1						100
BASATI		4	4		1						100
LEIZEAK	5		5	1							0
EL SONIDO DE LA METRAIA		5	5		1						100
STREETWISE		5	5		1						100
DINAMITA (TXOSNAGUNEA)		3	3		1						100
BAKE FALTSUA (TXOSNAGUNEA)		5	5		1						100
DJ JOTATXO (TXOSNAGUNEA)		1	1		1						100
LITTLE MARTIN SELEKTAH (TXOSNAGUNEA)		2	2		1						100
BASSAGAIN SOINU SISTEMAREN KAMIOI IBILTARIA		1	1		1						100
MARIANITOX BLAI (TXOSNAGUNEA)	2	7	9			1		1			77
DJ BULL (TXOSNAGUNEA)		1	1		1						100
GUZTIRA	7	42	49	1	12	1	0	1	0	14	
%	14,29	85,71	100,00	7%	86%	7%	0%	100%	0%	100%	

Berdintasun irizpideak, epaimahaia konpartsen eta karrozen balorazioa egiteko

Oro har, karroza edo konpartsa bat ez da modu positiboan baloratuko, baldin eta, zuzenean nahiz zeharka, emakumeak edo bestelako identitate sexualak (lesbianak, homosexualak, transexualak, intersexualak) gizonen mailara ez direla iristen pentsatzera eramaten gaituela ikusten badugu.

Bereziki, modu negatiboan baloratuko da honako kasu hauetan:

1. Emakumeak edo beste identitate sexualak beren kontrako indarkeriaren errudun bezala agertzen badira, euren izateko eragatik, hitz egiteko, mugitzeko edota janzteko moduarengatik, eta abar. Izan ere, horrela erantzukizuna kendu egiten zaie biktimarioei.
2. Emakumeen eta neskatoen irudiaren eta gorputzaren balorea gainontzeko ezaugarrien gainetik nabarmentzen denean; izan ere, horrela, haiek sexualizatzen ariko lirateke, ikuskizunetara eta lehiaketa publikoetara jende gehiago erakartzeko asmoarekin.
3. Emakumeak edo beste identitate sexualak "anormal", bizioso, gaixo edo atzeratu gisa agertzen badira.

Positiboki baloratuko da:

Emakumeak bakarrik agertzea; izan ere, testuinguru publiko batean, eurak bakarrik ateratzen dira kalera, balioa erantsiko eta "babesa" emango lieketen gizonen konpainiarik gabe.

Partaidetza mistoa; izan ere, bizitzako edozein arlotan emakumeen partaidetza gizonena bezain garrantzizkoa da.

Emakumeek edo gutxiengo sexual bateko pertsonak gizarteari egindako ekarpena irudikatzen denean (kulturala, artistikoa, kirol alorrekoa, zientifikoa, profesionala...); izan ere, horrela zalantzan jartzen da haien inbisibilizatzeko soziala.

Emakumeak eta gizonak etxeko lanak, zaintze lanak eta jarduera publikoak konpartitzen eszenaratzea; izan ere, horrela kritikatu egiten da sexuen artean dagoen erantzukizun banaketa desberdina.

Zaintza-lanen arloan emakumeen lan egonkortasun eza islatzen bada; izan ere, horrela zalantzan jartzen da tradizionalak emakumeena izan den lanaren balio ekonomiko eskasa.

Karrozen eta konpartsen analisi-taula

KARROZEN ETA KONPARTSEN PARTE HARTZEA						
1	IZENA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	PAREKIDEA <u>BAI</u>	PAREKIDEA <u>EZ</u>
2	LMFAO			24	1	
3	GALIARRAK			11	0	1
4	ZORTEDUNAREN ERRULETA			27	0	1
5	PATXARANZZIAK			10	1	
6	FLAMENKARIAK			9	1	
7	MEXIKONADAK			10	0	1
8	TUN-EROAK			10	0	1
9	SUGAR KARAOKEA			22	1	
10	XANTI TORNEOA			23	1	
11	IRURAKO AKELARREA			28	1	
12	TOLOSAKO JAIOTZA			25	1	
13	ERREGIN HINDUAK TOLOSALDEAN			16	1	

14	ANABASA KARAOKEA			21	1	
15	SUHILTZAILEEN EGUTEGIA			22	1	
16	AURTEN ESKIATZERA			12	0	1
17	"ONDO PASA, GAZTEK"			17	1	
18	"THE MOÑOÑETTES"			17	1	
19	KALEKO ESTATUAK			22	1	
20	NOEREN TXALUPA			20	0	1
21	LAGUN KOMUNAK ETA KOMUNAKO LAGUNAK			7	1	
22	MAHNA MAHNA			4	0	1
23	TIOBIBO			12	0	1
24	OIHANEKO ANIMALIAK			20	0	1
25	ZELEYON 2020			14	0	1
26	LA JARA TXARANGA			13	0	1
27	KONFERENTZIA EPISKOPALA / CONFERENCIA EPISCOPAL			9	0	1
28	"EUSCADIZ TXIRITTANTTA"			16	1	

29	MINIONS			15	1	
30	INDAR ARMATUEN EGUNA			8	0	1
31	AMBUS			31	0	1
32	ANGELES VS DIABLOS			11	0	1
33	AL CAN CAN Y AL VINO VINO			11	0	1
34	ERO-KUDEIRO			10	0	1
35	Tolosako Olinpiadak			20	0	1
36	San Estebango Euskadi Tropikala			45	0	1
37	MILITAR			23		
38	Indio eta Bakeroak			16	0	1
39	BROSS FAMILY			20	1	
40	ZULEMANIKULA			15	1	
41	TOLLYWOOD			22	1	
42	Vaya tres			3	0	1
43	MARIATXI TXATXI			8	1	
44	"QUECHUA 2 SECONDS" KALTETUEN			8	0	1

	PLATAFORMA					
45	UMEENTZAT BIDAIK			15	0	1
46	ERDI AROA			31	1	
47	AMONANANAKLUB			11	0	1
48	TOLOBOLEY			28	1	
49	WESTERN TOLO			35	0	1
50	OASI			16	1	
51	PATXI-MASA DANTZARI TALDEA			50		
52	JAUNARTZEA			27	1	
53	GIPSY KINGS			40	1	
54	KRUZEROK			21	1	
55	SAMURAI ETXEA			26	0	1
56	CHIGUAGUA			30	1	
57	GURE TXOKOA			18	0	1
58	80 DAY CLUB			11	1	
59	BEOTIBAR FRONTOIKO DANTZARIAK			16	0	1

60	TOLO BINGO			23	0	1
61	ARTABURUSK			34	1	
62	IÑAUTESESSIONS			10	0	1
63	TOLOSAKO TRIBUA			20	0	1
	GUZTIRA			1169	29	31

PROIEKTUAREN LIDERGOA



PROIEKTUAREN DINAMIZAZIOA

